

DEIALDIA

Business- lan agenda

Mexiko D.F.

Lan-agendak.
Zentzumeneren dastatzea
eta euskal produktuen
erakusketa.

Egunak: 2015ko uztailak 7tik 9ra

Lekua: Mexiko D.F.

Ekintza honen ezaugarria: Sektorekoa. Mahastizaintza eta ardogintza zein arrain-kontserben sektorerara zuzendutako ekintza.

Izen-emate epea: 2015ko apirilak 20

Parte-hartze prezioa: 700 € + BEZa

DEIALDI HONETAN:

Mexikoko merkatua. Merkatu objektiboa

Lan plana

Deialdiaren ezaugarriak. Planteatutako ekintzak

Parte hartzeko baldintzak

Izen-emate fitxa



Eusko Jaurlaritzak, Hazi Fundazioaren bitartez, eta nazioartekotzen laguntzeko jarduketan barruan, **business sektore-ekintza** honetan esku hartzeko gonbit egiten dizue.

Ezarritako helburuak errentagarri egin eta lortzeko helburuarekin, deialdi hau mahastizaintza eta ardogintzako nahiz arrantza sektorerara zuzenduta dago.

Business-lan Agenda Mexiko D.F.

Egunak: 2015ko uztailak 7tik 9ra.

Tokia: México D.F.

Ekintza honen ezaugarria: Sektorekoa. Mahastizaintza eta ardogintza zein arrain-kontserben sektorerara zuzendutako ekintza.

Izen-emate epea: 2015ko apirilak 20an.

Parte-hartze prezioa: 700 € + BEZa.

Merkatu Mexikarra. Sektore Ekintza.

Mahastizaintza eta ardogintzako sektorea

- Errioxako ardoek %30 inguruko hazkundera izan dute Mexikon azken urtean.
- Errioxako 81 upeldegik esportatzen dute Mexikora, non deitura honek inportatutako ardoen balioaren %10a hartzen baitu.
- Hazkunde izugarria izan da Mexikon azken urtean, inportatutako Errioxako milioika litroak 2,7ra heldu direlarik; horietatik %70a ondutako ardoei dagokie, eta kopuru horiek Errioxaren jomugen maila gorenean jarri dute Mexiko.

Arrantza-sektorea

- Kontserbetarako merkatu hau goraka doala uler daiteke. Azken urteetan, gora egin dute espainiar kontserben esportazioek, balioari nahiz merkatu-kuotari dagokienez.
- Kontserbak ia hegalaburrera eta sardinetara mugatzen dira.

Proposatutako lan plana

Uztailak 6, astelehena: Mexiko DFra heldu.

Uztailak 7 eta 8, astearte eta asteazkena: enpresa bakoitzarentzat apropos antolatutako bilera pertsonalizatuak.

Uztailak 9, osteguna: sustapen-ekintzak, zentzumenen dastatzea eta produktuen erakusketa.

Deialdiaren Ezaugarriak

a) Lan Agendak



a) Lan Agendak

Astearte eta asteazkenean, uztailak 7 eta 8, litezkeen erosleen eta ekintzan esku hartzen duten enpresen arteko bilera pertsonalizatuak egingo dira.

Erosleek eta enpresek harreman zuzena izatea lortzea da helburua.

Lan-agendak esku hartzen duten enpresa bakoitzaren beharretara egokituta egingo dira.

Helburu hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da esku hartzen duten enpresek jakinaraztea, konfidentzialtasun osoz, merkatuan zein den beren errealitatea eta zein enpresa-profilarekin jarri nahi den harremanetan edo zein enpresa-profiletara heldu nahi duen. Horrela, agendak merkatu mexikarrean hasi nahi duten enpresentzat nahiz Mexikon dagoeneko inportatzailea izanda produktua leku hobean jarri nahi dutenentzat zuzenduta egingo dira.

- Merkatu horretan dagoeneko inportatzailea duten enpresei, banaketa handiko kate nagusiekin eta ardoaren edo gourmet produktuen salmantan espezializatutako establezimenduekin antolatuko zaizkie lan-agendak, beren presentzia merkatu horretan finkatzeko helburuarekin.
- Inportatzaileek ez duten enpresei, berriz, lan-agendak antolatuko zaizkie merkatu honetako inportatzaile nagusiekin, merkatu geografiko honetara errazago sartzen saiatzeko.

Ekintza honetarako, Hazik **pertsonalizatutako bosna bilera** bermatzen ditu, gutxienez ere, enpresa parte-hartzaile bakoitzarentzat.

Era berean, enpresa parte-hartzaileen gutxienerako kopurua ezarriko da, euskal enpresen presentzia duina izatea bermatzeko, eta baita gehienekoa ere, jomugan kalitatezko zerbitzu egokia eskaini ahal izateko.



Deialdiaren Ezaugarriak

a) Lan Agendak



b) Zentzumenen dastatzea eta ekintzan esku hartzen duten produktuen erakusketa.

Lehentasunezko helburuak:

1. Ekintza honetan esku hartzen duten enpresen eta bertaratzen direnen artean harreman profesionalak ezartzea.
2. Euskal gastronomia gainerakoetatik bereiztea.

Planteatutako jarduerak:

1. Show Kitchen, Michelin Izar bat duen euskal sukaldari baten eskutik. Bere laguntzarekin, euskal gastronomiaren onurak helaraziko ditugu Euskadiko kontserbekin egindako pintxoak prestatuz.
2. Zentzumen-dastatzea, Mexikon itzal handia duen iritzi-emaile baten esku-hartzearekin. Mexikoko Sommelierren Elkarteko presidentea da bera, telebista-programa bateko zuzendaria eta aurkezlea, eta zenbait bitarteko, ekitaldi eta erakundetako aholkularia. Hainbat artisten pintura eta musikarekin egingo da dastatze-ekitaldi hau.
3. Show room – enpresa parte-hartzaileen produktuen erakusketa.

Jarduera hauen helburua da bertaratutako publikoaren artean interesa sortzea, erakusketan bertan esku hartzen duten produktuen enpresak bisita dezaten.

Gonbidatutako publikoa

Inportatzaile zuzenak bezala diharduten ardo eta elikagaien inportatzaile eta banatzaileak, ardoen edo gourmet izeneko produktuen salmentan espezializatutako establezimenduak, iritzi-emaileak eta espezializatutako hedabideak nahiz orokorrak.

Parte hartzeko Baldintzak

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa

Bidaia eta ostatu-hartzea

Merkantzia garraiatzea

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa **ekoizleek** soilik har dezakete parte ekintza honetan.

Ekintza baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat Hazi Fundazioak eta ekintza hau antolatzeaz arduratutako enpresak deitutako bilera batera bertaratzeko konpromisoa.
- Ekintza honetan parte hartzen duen enpresak konpromisoa hartzen du Hazi Fundazioak eskatutako dokumentazio guztia hitzartutako epean bidaltzeko, lan-agendak behar bezala antolatu ahal izateko.
- Kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Business/lan agendan sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman**. Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.

Ekintzaren ondoren:

Ebaluazio-inkesta bete, jardueraren ondoren on-line jasoko dutena.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa

Parte hartzeko eskaerak jaso ondoren eta, eskaera egin duten enpresak nahiz produktuak, eta helmugan egingo diren ekintzak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak hautatuko ditu parte-hartzaileak; betiere, promozio orokor eta eraginkorra egiteko eta gure elikadura sektorearen mailarekin bat datorren irudia transmititzeko. HAZI Fundazioak jakinaraziko dio enpresa bakoitzari horren izen-ematea onartu den edo ez.

Bidaia eta ostatu-hartzea

Ekintza honetan **ez daude sartuta** joan-etorri eta ostatu gastuak. Dena dela, Eusko Jaurlaritza, Hazi Fundazioaren bitartez, enpresen zerbitzura dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, enpresa erakusketariak hala eskatuz gero; kasu horretan, indibidualki fakturatuko zaio enpresa bakoitzari.

Merkantzia garraiatzea

Enpresak bere gain hartuko du merkantzia garraiatzeko **kostu osoa**, zergak, agirien izapidetza eta aseguruak barne.

Beraz, Hazi Fundazioak merkantziaren bidalketa multzokatu bat antolatuko du eskaera egiten duten enpresentzat, garraiolariak zehaztutako toki batetik.

Parte hartzeko Baldintzak

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa egiaztagiria](#)

[Izen-emate epea: 2015ko apirilak 20an](#)

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu adierazitako helbidera:

[1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.](#)

[2. Mexikoko Business-lan agenda antolatzeko kuotaren ordainketa egiaztagiria.](#)

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da.

Kontzeptua: "Enpresaren izena + 2015 Mexiko Agenda"

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (CAJA LABORAL KUTXA). Laboral kutxaren Bic-a: CLPEES2MXXX.

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartu nahi izanez gero izen-emate fitxa bete eta lehenbailehen bidali **bsevillano@hazi.eus** helbide elektronikora.

Izen-emate epea: 2015ko apirilak 20an.

GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki gauzatutzat emateko, ESKATUTAKO AGIRI GUZTIAK bidali behar dira.


Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak ekintza honetan parte hartzea. Eusko Jauralaritzak jakinaraziko dio enpresa bakoitzari horren izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, BARNE HARTZEKO JAKINARAZPENA JASO OSTEAN, PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK, ORDAINDUTAKO GUZTIA GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Izen-emate fitxa

Mexikoko 2015ko lan agendaren antolaketa

ourkibidera itzuli 

2015an Mexikon lan agenda antola diezadaten nahi dut eta baldintzak onartzen ditut.

Izen komertziala:	
Izen soziala:	
I.F.K.:	N.E.I.E. (R.I.A.):
Helbidea: Probintzia:	P.K. - Herria:
Telefonoa: Faxa:	Helbide elektronikoa: Web orria:
Erakusmahaiaren arduraduna: Sakelako telefonoaren zenbakia:	
Saltzen dituzun produktu eta markak:	
Baduzu banatzailemerkatu honetan? Erantzuna baietz bada, izen komertziala adierazi.	
Zer-nolako profileko enpresekin bildu nahi duzu Mexikon:	
Idatzi egoki derituzon iradokizunak, hitzorduak adosteko orduan aintzat hartzeko:	
Mexikoko merkatuan saltzen diren zein marka/produktu dira zure lehiakideak?	

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Itzuli bsevillano@hazi.eus helbide elektronikora, 2015ko apirilaren 20an baino lehen, izen-ematearen transferentziaren kopia erantsita.